

# “Hiri-ertzetako espazio-egoeretatik erator daiteke hirietan azpiegietura berdeak beharrezkoak direla”

## Irene Zuñigarekin solasean



Unai Fernandez de Betoño  
Arkitekto doktorea eta EHUko irakaslea

Jasotze-data: 2016-09-09  
Onartze-data: 2017-01-30

Irene Zúñiga Sagredok (Gasteiz, 1975) Madrilgo Arkitektura Eskolan ikasi du eta 2016ko urtarrilean *Espainiar hiri ertainen lurzoru urbanizatuaren mugen gaineko gerturatzeko paisajistiko eta funtzionala* tesia defendatu zuen, José Fariña Tojo-ren zuzendaritzapean. Ireneren tesian hainbat hiriren aldiriak hartu dira azterketa fotografiko gisa, zeinak *Aldiriko* azalaren osaerarako erabili diren. Irenerekin bildu gara, zehazki bere tesiaz eta oro har hirien aldiri garaikideez jarduteko.

**Aldiri:** Zer dela-eta zentratu duzu zure ikerketa hiri garaikideen mugetan? XIX. mendeko hiriguneak edo gerra osteko poligono modernoek baino interes handiagoa al dute?

**Irene:** Hirien mugetan hiritartze-fenomeno garaikideak gertatzen dira, beraz egunerokotasunak interes-fokua hiri-bazterretan kokatzen du. Hirigilea naizenez geroztik, tesiaren ikerketekin gaur egungo hirietan lan egiteko baliagarria izateko tresna lortu nahi izan dut. Gaurko hirien edo plangintzen antolaketak jasangarritasun-arazoak sortzen ditu. Gizartea eta ekonomiaren hazkuntza etengabe eta mugarik gabe hazteko pentsatuak dira, eta gure hirietan pentsamendu berdina txertatu da. Hirietan etengabeko hazkuntza horren bideragarritasunaren galdera ireki egin da, eta testuinguru horretan jaito da nire tesia. Zer gertatzen da hirien funtzionamendu egokiak gehieneko tamaina bat badu, zeinaren gainetik ez den bideragarria? Eta tamaina hori hiriak bere espazio naturalarekin erlazionatzeko gaitasunarekin harremanean balego? Eta hiriaren muga funtzionamendu zuzen baterako harremanak ezartzea posible balitz eta, horrekin batera, hazkuntza berriak baimenduko balira?

*Posible al da hiriaren hazkuntza bere muga-espazioaren arabera diseinatzea?*

Galdera horiei aurre egiteko tamaina ertaineko hiriak eredu bikainak bilakatzen dira, sakabanatze-fenomenoak hiri handietakoak bezain hedatuak ez direlako eta horregatik azterketa bideragarri suertatzen da. Bestalde, hipotesia baieztatuz gero, tamaina horretako hirietan egungo planifikazio-ereduak birbideratzeko beste bide batzuk aurrera eramatea posible liteke.

Krisialdiak hirien hazkuntza geldiarazi du. Zein muga sortu dute amaigabe hazteko pentsatuak izan diren hiriek? Hirien muga aldaketa etengabe egin den espazioa da, eta krisialdiak paralizatu egin du. Mugaren gelditzearekin batera egoera zoragarria sorrarazi da: landa-hiriaren arteko elkarkidetzak, identitate gabeko gunek misterioitsuak, aukera galduko guneen bazterketa, haurtzaroko oroitzenak esnatzen dituen gunea (bizikletaren gainean hiritik atera eta landa-guneetatik zure bizilekua, zure paisaia identifikatzen zenuen egun horien oroimena...).

**A:** Burgos, Gasteiz, Iruñea, Lleida, Logroño eta Valladolideko aldiriak aztertu eta konparatu dituzu. Ikerketaren ondorio batek kezka eman digu: aldiriak oso antzekoak direla. Hori ona al da? Edo estrategiak proposatu beharko liriteke desberdinak izatea lortzeko?

**I:** Ez nuke baloratuko ona edo txarra ote den. Antzekotasunak aspektu positiboetan baleude, ongi irudituko litzaiguke. Arazoa da identitate-galera eta landa-hiriaren arteko harreman ezaren fenomenoak zabaltzen ari dela. Eta okerragoa dena, hiri handietako aldirietan komunak diren ezaugarriak tamaina erdiko hirietan agertzen ari direla, tamaina erdiko hirien abantailak deuseztatuz.



Irudiaren egilea - Pirati.

Ikertu ditudan hiri-mugako adibideek paisaia, lengoia arkitektonikoa eta ertzeko elementuak partekatzen dituzte. Adibidez, denek dituzte saihesbideak hiri-mugetan. Nire ikuspegitik larriena zera da, metropoli edo hiri handi baten estrategia eta parametroen plangintza —makroekonomiak eragindako etxebizitza-beharrak immigrazio-arrazoiengatik— hiri ertainetara eraman dela. Horrela, hiri bakoitzaren ezaugarriak ezabatuak dira hegemonikoki ezarri diren estrategiak inposatzen direlako.

Beraz ez da beharrezkoa desberdintasuneko estrategiak proposatzea, baizik eta estrategia berriak hiri ertainek eskaintzen dituzten aukeren arabera izatea. Gainera, eskala bakoitzeko hirien arteko desberdintasunak gehitu beharko lirake, gune ekologikoen arabera oinarrituak batez ere (Geddes bailararen ebaketa) eta ondare historikoaren arabera. Baina igual desberdintasun horiek indartzen duten estrategia amankomuna da hiri-eskala guztientzat.

Gasteizko eraztun berdea adibidetzat hartzen badugu, berau hirigintza praktikoa ontzat joaz, estrategia argia da: eraztun berdeak hirigunea eta landa harremanean jartzen ditu, espazio natural, historiko eta kulturalak balioan jarriz eta etorkizuneko hiri-hazkuntzak lurraldearekin lotura ekologikoan jarriz. Hiri bakoitzean espazio historiko, natural eta kulturalak lekutze desberdina dute eta, beraz, Gasteizko eraztun berdeak lortzen duena ez da posible beste hirietan aplikatzea. Beste egoera batzuetan, eraztunak sare edo tentakulu forma hartuko du. Hiri bakoitzaren berezitasunak indartuko dira estrategia amankomun baten pean. Estrategia amankomun hori, Azpiegitura Berdea deitu daitekeena, erraza bada ere, funtsezko ideiak dira. Gainontzeko gauzak, marketin hutsa dira.

**A:** Tesian erabili duzun metodologiak, neurketetan eta datu objektiboetan oinarriturik, atentzioa eman digu. Esango diguzu nola osatu zenuen metodologia hori, non jaio da? Ba al dakizu Madrilgo Arkitektura Eskolan antzeko doktore-tesirik abian ote den?

**I:** Metodologiak funtsezko bi atal ditu. Lehenengo atala hiri-muga identifikatzeko, eta bigarrena haren sailkapena egiteko. Lehen atalak, aldi berean, bigarren banaketa bat du: ikerketa-eremuaren identifikazioa, haren adierazpen grafikorako definizio-irizpideak ezartzen ditu. Marrazketak agerian utziko du mugaren bi alderdietara gertatzen den erabilera-desberdintasuna. Eta neurketak erabileraren intentsitatearen eta sortzen diren harremanen portzentajeetan azalduko dira.

Metodologia ezartzeko aurkitu nuen lehen zailtasuna ikerketa-eremua mugatzean zetzan, horretarako hiri-sarea noraino luzatzen den jakin beharra nuen. Kasu gehienetan hirigunearen jarraitutasunak muga administratiboa gainditzen du eta haren muga fisikoa beste udalerrri batean aurkitzen da. Egoera horiek ebazteko, zirkunferentzia-erradio bat ezarri nuen, erradioaren zentroa hirian kokatuz eta beste puntua hiriaren azken hiri-piezan kokatuz. Zirkunferentzia horren barne gelditzen zen esparru fisikoa, osorik, ikerketa-eremua izango zela erabaki nuen.

Metodologia definitzen joan naiz lekuaren ezagutzatik jaso nahi nuenaren arabera. Hirien ertzetako bi aldeetara gertatzen diren bi gertuko paisaien gaineko datuak jaso nahi nituen, bi paisaia horiek ia gehienetan kontrajarriak direlako. Azken helburua hirien mugetako bi paisaiak —bata hiritarra eta bestea landatarra, naturaltasun-maila desberdinak aurki daitezkeelarik— harremanean ziren ala ez ezagutzea zen.

Bi paisaia horien erabilerak eta harremanak definituak nituenean, sailkapen-lana egiten nuen. Tipok sortzeko garaian, ezaugarri hauek aintzat hartu nituen: hiriarekin duen harremana, sortzen diren mugak eta forma. Formaren kategoriaren barne, mugaren sailkapen bat sortzen da: muga linea bat bezala, muga eremu bat bezala edo lurraldean sakabanaturik diren hainbat piezen interfase gisa.

Hainbat ikerketa-lan eta tesi garrantzitsu aipa ditzaket, Madril eta Bartzelonako hiriek sortu duten paisaia lausoaren morfologia ikasten dutenak —ez daude hainbeste hirien

mugaren zona ikertzen dutenak—. Madrileko Eskolako Eduardo de Santiago-ren eta Lorena Vecslir-en doktore-tesiak azpimarratuko nituzke, eta Bartzelonako Vallés Katedrako ikerketa-ildoan hirien hazkuntzaren garapena aztertzeke metodologiak sortu dituzte, forma eta formaren zergatiak arakatu.

**A:** Zure tesian hirien aldiriak ikergaitzat dituzten hainbat pentsalariren lana eta hiri-kontzeptuen inguruan aritzen zara. Zein ikuspegi azpimarratuko zenuke? Agian Geddes-en ideiarekin, Aldiri zenbaki honen artikuluan landu duzuna?

**I:** Ezingo nuke bakar bat aipatu. Geddes-en ideiek erakartzen naute, gaur egunean plangintzako hainbat parametro berak mende hasieran aipatu zituelako ordurako: eskualde naturalaren ikerketa, identitatearen galera, herritargoaren ezagutza. Neure buruari galdetzen diot zergatik horiek ez diren dagoeneko plangintzaren euskarri ukaezinak. Lurraldearen ikerketa sistematikoak identitate-galera ekidin dezake, eta ezagutza hori ezin da osatu herritarren parte-hartzerik gabe. Nola da posible herritarren parte-hartze prozesua XXI. mendean legedian gai berritzaile bezala jaso izana? Nola da posible plan orokorretan urak har ditzakeen guneak lurzoru urbanizagarrien sailkapenean egotea eta sailkapenetik kanpo jartzea zaila izatea? Uholde-arriskua duten eremuak ezagutzeko ez da teknologia aurreraturik behar, lekuaren ezagutzarekin ondoriozta daiteke erraz.

Geddesek gaur egungo plangintzaren hainbat fenomeno aurreratu zituen eta gaur egun indarrean daude oraindik. Geddesek hirien sakabanaketaren arriskuaz jardun zuen. Mende bat geroago, arazoa larriagoa da eta hirien bailara-ebaketa egitea fantasia hutsa da.

Nik nahiago dut pentsatu gure hiriek oraindik badutela berreskurapen-esparrurik eta bailara-ebaketaren marrazketa egingarria izan daitekeela. Nire ikerketan lagun izan nituen pentsalariaren esan eta kontzeptuen artean, garrantzitsuenak da hiri-aldiren kudeaketa eta ekintza-bideak eman nahi dituztela.

Hiria sakabanatu egiten da lurraldean zehar, espazio naturala urrunduz. Eta prozesu hori gertatzen da espazio naturalaren garrantziaz hirian jabetzen garen garaian. Eta orain, nola hurbil dezakegu espazio natural hori? Nola da posible espazio mota hori hirietan sartzea?

**A:** Azken urteetako bereizi gabeko hazkuntzari kontrol-mekanismoak nola ezarri aztertu duzu (zentralizazioa kendu, gune berdeak, esku-hartze paisajistikoak). Gaur egun baliagarriak direla uste duzu? Hiria Antolatzeke Plan Orokorra tresna egokia al da edo beste eskala bateko plangintzatik ezartzea egokia ikusten duzu?

**I:** Baliagarriak direla sinisten dut, baina egun ez dira gure hiri-plangintzetan ezartzen. Ni udalerrri-mailako plangintzaren defendatzaile sutsua naiz, oinarriko eta funtsezko tresna dela uste dut. Tresna malgua da; baina haren filosofia eta kontzeptuak birbideratu behar dira. Azpiegitura berde bat hirian txerta daiteke, udal-plangintzan zenbait kontzeptu definituko balira: zer den parke bat, zer den espazio libreen sistema orokorra...

Esaten ari naizenaren adibiderik hoberena Gasteizko Eratzun Berdean dago. Eratzun Berdea hiriaren hazkuntza kontrolatzeko tresna eraginkorra gertatu da. Gune horrek hiriaren eta landaren arteko harreman on bat sortu da, aisialdi, ingurumen eta osasun-gune bezala definitu daitekeelarik gainera. Baina beste adibiderik ere aurki dezakegu. Green Belt Act Ingalaterran, adibidez. Lurralde horretako hiri guztietan legez, eratzun berde bat antolatu behar da. Gune horri esker, hiri bakoitzak bere irudi propioa du —sakabanaketa ukatzen da— eta identitate propioa. Bristol edo New Castle hirietatik atera zaitezke oinez landa-eremura, eta eratzuna zeharkatzean beste udalerrri batean zaudela identifika dezakezu. Ibilbide hori zoragarria da.

**A:** Interes berezia sorrararazi digu Gasteiz eta Iruñeko aldirien arteko konparaketak. Zertan dira berdinak eta zertan desberdinak?

**I:** Nire tesian bildutako datuen arabera, antzekotasun handiak daude bi aldirien artean. Biek hazkuntzaren konpaktutasuna partekatzen dute. Lur-okupazioari buruzko datuetan berdintasunak badituzte ere, bien bilakaera oso desberdina izan da.

Iruñearen eta Gasteizen arteko desberdintasun nagusia, udalerrien dimentsioa da. Iruñeak 25 km<sup>2</sup> ditu eta Gasteizek 276,5 km<sup>2</sup>. Horrek desberdintasunak sortzen ditu. Gasteizen, udalerraren dimentsioak plangintza ordenatua eta ingurune naturalarekin oreka sortzea posible egin du. Gasteizko udalerrian hirigunea eta landa-guneak daude, eta kapitaletik gertu ez dago hazkuntza jaso dezakeen udalerririk, eta horregatik posible izan da haren hazkuntzaren gaineko erabakiak elkarren artean hartzea.

Iruñean, berriz, Arga eta Sadar ibaiez gain, ez dago harreman-funtzioa bete dezakeen espazio naturalik. Haren inguruan diren 16 udalerririk kapitalarekin lotura-guneak sortzen dituzte, kasu gehienetan hirigunearen saretik itsatsirik. Iruñeak ez du gaitasunik bere lurraldearekin harremanik sortzeko, ez baitu administrazio aldetik eskumenik bertan, eta, beraz, ezin du berarekin hirigintza-politika amankomunikatu.

Kompaktutasuna bi hiriburuen ezaugarria bada ere, ezin da bi kasuetarako hiri-sarearen jarraitutasunaz hitzegi. Iruñea eta ondoko udalerririk zatikaturiko lurraldea sortzen dute, non hiri-piezak isolaturik eta komunikaziorik gabe agertzen diren bata bestearen ondotik, baina ez dago jarraitutasunik haien artean. Gasteizen, berriz, planifikaturik dagoen hiri-sare jarraitua da.

**A:** Bukatzeko, muga hiritarraren arazoari proposatzen diozun gerturatze ekologiko-paisajistikoari buruz zer gaineratuko zenuke?

**I:** Gure hirien mugako zonak natura eta hirien arteko filtro-funtzioa jasoko balu, gure hiriak osasungarriagoak lirateke eta gure naturaren babesa hobetuko litzateke.

Hiriaren eraikuntza geldoago eta zentzudunago bat aldarrikatzen dut. Horretarako prozesuan parte hartzen duten eragile guztiak aintzat hartu behar dira. Hirigileen lantaldea txiki gelditzen da egiteko horretarako, lurraldearen konplexutasuna ulertzeko diziplinarteko laguntza behar dugu.

Orain arte hiriek lurzorua okupatu dute, lur berrietan eraikiz eta lurzorua iragazkorra eginaz, ibaiak bideratuz eta natura domestikatuz edo natura desagertuz. Egun badakigu natura hiria egiteko laguntzaile izan daitekeela, diseinu egokiarekin egiten bada bederen. Ibaia hiriarentzat abantaila handiak izango ditu, baldin eta egoera naturalean uzten badugu eta aldi berean uholde-arriskua duten lurzoru-azalerak babesten baditugu.

Gai hauen guztien arteko harremanak hiriaren mugetan ebatzi behar ditugu, eta gune horietan aprobeixatu behar ditugu hiria modu ekologikoagoan egiteko aukerak. Uholde-arriskua duen gune bat arriskutsua izatetik parke natural bat bezala hartuko bagenu, eta plangintzatik horrela diseinatuko bagenu, hiri jasangarriagorantz salto handia emango genuke. Kanalizatze-azpiegitura handia baino ekonomikoagoa izango da, bioaniztasun ekosistemikoen zerbitzuetarako abantaila gehiago ditu, konektibitate ekologikoa, aire eta uren kalitatearen osasungarritasuna hobetzen da eta biziguneek aisialdiko gune hobekoak lortuko dituzte. Eta hau ez da utopia bat.

===

Erredakzioan itzulia.